

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

VITORIA-GASTEIZKO
INGENIARITZA
ESKOLA
ESCUELA
DE INGENIERÍA
DE VITORIA-GASTEIZ

VITORIA-GASTEIZKO INGENIARITZA ESKOLAKO BULETINA

INFORMAZIO BULETINA 117. zb.

2024ko mayatza

www.ehu.eus/vitoria-gasteizko-ingeniaritza-eskola

EDUKIAK

Titulazioen sustapena 3

1. Orientazio Azokak
2. Ateak Zabaltzeko Egunak
3. Ikastetxeetako hitzaldiak

Bisitak eta jardunaldiak 5

1. Cadena SER topaketak Ekintzailtza
2. Simulog
3. Ibilgailu Elektrikoen III. Zabaltze eta Topaketa Jardunaldiak

Beste batzuk 7

1. Martxoak 8
2. International week
3. Formula Student, 3 lehiaketatan parte hartzeko aukeratua
4. CAMINUS elkarte
5. Inizia Day
6. "Industriara Bideratutako Adimen Artifiziala eta Ordenagailu bidezko Ingeniaritza" masterra

Titulazioen sustapena

1. Orientazio Azokak

Donostia-Gasteiz-Bilbo:

Urtarrilaren 27an, otsailaren 3an eta otsailaren 10ean unibertsitate orientazioko azokak egin zituzten UPV/EHUren hiru unibertsitate campusetan, 2024/2025 ikasturteari begira.

UPV/EHUren graduko ikasketak eta unibertsitatara sartzeko prozedura osoa gertutik ezagutzeko aukera paregabea ematen diete orientazio azokek etorkizuneko ikasleei.



2. Ateak Zabaltzeko Egunak

Martxoaren 19an eta 22an, Eskolako ateak zabaltzeko egunak egin zituzten, aurrez aurre.

Bereziki eskertu nahi dizuegu laborategietako ekipamendua erakusteko eta haien ezaugarriak azaltzeko erakutsi zenituzten ilusioa, ulermena eta dedikazioa. Eskerrik asko zuen laguntzarengatik.

Eskerrik asko, Eskolako titulazioen eskaintza eta prestakuntzaren kalitatea gizarteari gero eta gehiago erakusteko borrokan jarraitzeagatik.



3. Ikastetxeetako hitzaldiak

Hilabete hauetan zehar hainbat ikastetxetara joan gara, eta etorkizuneko ikasleei azaldu dizkiegu gure graduak. Hauek dira bisitatu ditugun ikastetxeetako batzuk: Federico Baraibar, San Prudencio, Olabide Ikastola, Zabalzana, Miguel de Unamuno edo Koldo Mitxelena.

Bisitak eta jardunaldiak

1. Cadena SER topaketak Ekintzailtza

Martxoaren 19an, asteazkenean, Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolako Amaia Calleja irakasleak "Ser Vitoria Topaketetan" parte hartu zuen Ser Vitoria irrati katearen eskutik, eta gure Eskolako ekintzailtzaz hitz egin zuen.



2. Simulog

Otsailaren 1etik martxoaren 8ra SIMULOG Graduondoko Ikastaroa egin zuten Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolan.

Kate logistiko integralaren simulazio digitalari buruzko ikastaroa da SIMULOG. Logistikaren munduaren gaineko ikuspegi ulerkorra eta xehea eskaintzeko diseinatutako programa bat da, logistikaren hasierako faseetatik azken katebegiraino: esportazioa.

Ikastaro honetan, kate logistikoa osatzen duten prozesuetan barneratzeko aukera izan zuten parte hartzaileek, eta beharrezko ezagutzak eskuratu zituzten haren funtzionamendu integrala ulertzeko eta zirkulua modu eraginkorrean ixteko.



3. Ibilgailu Elektrikoen III. Zabaltze eta Topaketa Jardunaldiak

Ondoz ondoko hirugarren urtez, Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolak eta Ibilgailu Elektrikoen Erabiltzaileen Elkarteak (AUVE) IBILGAILU ELEKTRIKOEN ZABALTZE ETA TOPAKETA JARDUNALDIAK antolatu dituzte UPV/EHUren ARABAKO CAMPUSEAN. 2024ko apirilaren 18an eta 20an izango dira.

Jardunaldi horietarako sarrera librea eta doakoa da, eta honakoak barne hartzen dituzte: partikularren eta kontzesionarioen hainbat modelo elektrikoren erakusketa, enpresen parte hartzea eta hainbat ekitaldi sozial eta dibulgatzaile. Ekintza horiek aukera paregabea emango diete bertaratzten direnei, mugikortasun elektrikoaren sektoreak gure ingurune hurbilean duen garapen egoera eta bultzada zuzenean ezagutzeko.



Beste batzuk

1. Martxoak 8

Joan den martxoaren 8an, Eskolako Berdintasun Batzordeak egitasmo polita antolatu zuen, emakumearen berdintasun eguna zela eta.

Dena prest egon zedin, boluntario batzuek morez margotu zituzten ikastegiko espazio batzuk. Izan ere, genero ororen eskubide berdintasuna aldarrikatzeko nazioarteko kolorea da morea.



Halaber, ohikoa bihurtu den moduan, martxoaren 8an eskolako ate nagusian bildu ginen, argazki bat ateratzeko eta une hori betikotzeko.



Gainera, aurten, Berdintasun Batzordeak lelo lehiaketa bat antolatu zuen. Honakoa zen gaia: "Berdintasuna eta ingeniariak". Lehiaketan Eskolako langile guztiek parte hartu ahal izan zuten (ikasleak, IRI, TEKAZEL), eta lelo hau izan zen irabazlea: "Aniztasuna diseinu bakoitzean, BERDINTASUNA berrikuntza bakoitzean". Marcos Alonsok sortu zuen, Elektronika eta Automatika Ingeniaritzako Graduoko ikasleak. 50 €-ko opari txartela eman zioten saritan, Campuseko Elkar dendan gastatzeko.



Lelo irabazlea ikastegiko pantailetan eta sare sozialetan erakutsi zuten martxoaren 8ko astean. Gainera, ekainaren 23rako (Emakume Ingeniarien Nazioarteko Eguna) prestatuko duten posterraren oinarria izango da.

Halaber, kamisetak jarri zituzten salgai, iaz bezala.

2. International week

Martxoaren 11tik 15era International Week egin zuten Eskolan. Europako Euclides Sareko Ingeniaritza Eskola guztietan ospatzen da, aldi berean. Aste horretan zehar, eskola horiek ikasleak partekatzen dituzte, eta unibertsitateek eskaintako ikastaroetan parte hartzen dute.

Egitasmoaren barruan, gure ikastegiak "Production management, simulation of manufacturing plants" ikastaroa eskaini zuen, eta Italiako, Suitzako, Alemaniako eta Belgikako 27 ikasle eta 3 irakasle jaso genituen.

Bestetik, gure Eskolako 15 ikaslek Dortmund, Lovaina, Porto, Bolzano eta Coimbrako nazioarteko asteetan parte hartu zuten, Erasmusen BIP programari esker.



3. Formula Student, 3 lehiaketatan parte hartzeko aukeratua

Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolako FSV (Formula Student Vitoria) taldea hiru lehiaketatan parte hartzeko hautatu dute. Adibidez, Alemaniako Hockenheimring zirkuituan parte hartuko du; proba horretan parte hartuko duen lehenengo euskal taldea da.



FSV berriz lehiatuko da 2024an, honako egutegiarekin:

Uztailak 17-21 - FS UK
(Ingalaterra - **Silverstone**)

Abuztuak 1-7 - FSS
(Espainia - **Circuit de Catalunya**)

Abuztuak 12-18 - FSGermany
(Alemania - **Hockenheimring**).

Zorionak eta zorte on gure taldeari!

4. CAMINUS elkartea

“Kiroleros” webgunean irakur daiteke elkarte horretako kideek, CAMINUS elkarteko kideek eta Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolako irakasle talde batek egindako elkarrizketa, CAMINUSEko kideei autonomia handiagoa eman nahi dien proiektu bati buruzkoa.

Hemen irakur dezakezue:

<https://kiroleros.com/caminus-y-upv-trabajando-en-una-silla-para-tods-y-para-todo/>



5. Inizia Day

Maiatzaren 8an Inizia Arabacampusen Inizia Day eguna ospatu zuten. Azken urtean egindakoa ezagutzera emateaz gain, hitzaldi ekintzaile bat eta INIZIA sarien banaketa izan ziren ekitaldian.

Sabrina Moulay Houchine gure ikasleak INIZIA Araba Campus saria jaso zuen "Gradu Amaierako Proiektua, Master Amaierako Proiektua eta Doktorego Tesia" kategorian; AidTec Solutionsen egin zuen.

Zorionak, Sabrina!



6. "Industriara Bideratutako Adimen Artifiziala eta Ordenagailu bidezko Ingeniaritza" masterra

2024/2025 ikasturtetik aurrera, Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolak masterreko titulazio berri bat izango du: "Industriara bideratutako adimen artifiziala eta ordenagailu bidezko ingeniaritza" unibertsitate masterra.

Adimen Artifizial Industrial (AAI) funtsezko tresna bilakatu da industria inguruneko eraginkortasuna, produktibitatea eta berrikuntza bultzatzeko. Ekoizpena optimizatzen du, datuen analisiaren bidez; erabaki informatuak hartzea errazten du eta, hala, enpresaren eraginkortasuna eta azkartasuna bultzatzen ditu; zeregin konplexuak automatizatzen ditu eta, hala, giza baliabideak libre uzten ditu funtzio estrategikoetarako.

Ordenagailu bidezko ingeniaritzak aukera ematen du sistema mekanikoak aztertzeko, fabrikazio prozesuak aztertzeko, simulazio azkarrak egiteko... Modu horretan, produktuen errendimenduaren gaineko ikuspegi integrala eta aurreratua eskaintzen du.

"Industriara bideratutako adimen artifiziala eta ordenagailu bidezko ingeniaritza" masterrak bi jakintza arloak integratzeko gai diren espezialistak prestatzeko aukera ematen du, industria sektorearen gaur egungo eskariari erantzuna emateko.

Programaren iraupena ikasturte batekoa da. 15 irakasgai ditu (48 ECTS), eta Master Amaierako Lana (12 ECTS).



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

VITORIA-GASTEIZKO
INGENIARITZA
ESKOLA

ESCUELA
DE INGENIERÍA
DE VITORIA-GASTEIZ